

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa, 2024. urterako zerga neurriei buruzkoa

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2023ko abenduaren 22ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa, 2024. urterako zerga neurriei buruzkoa", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 22a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

#### 26/2023 FORU ARAUA, ABENDUAREN 22KOA, 2024. URTERAKO ZERGA NEURRIEI BURUZKOA

##### ZIOEN AZALPENA

Foru arau honek Arabako zerga sistemari eragiten dioten xedapenak ditu, eta bi titulutan banatzen da.

I. tituluak zenbait aldaketa sartzten ditu Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, gehienak teknikoak.

II. tituluan zenbait aldaketa egiten dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, jarduera ekonomikoen gaineko zergan, ondasun higiezinaren gaineko zergan, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

### I. TITULUA. ARABAKO ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA

#### 1. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra

Honako aldaketa hauek egiten dira Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean (foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. Aldatu egiten da 79. artikuluko 1. apartatuaren hirugarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

"Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, zergapekoak zerga administrazioari eskatu ahal izango dio kautelazko neurriak har ditzala aurreko paragrafoetan aurreikusitako bermeen orde. Kasu horietan, ez da aplikatuko foru arau honen aurreko artikuluko 6. apartatuan xedatutakoa."

Bi. 90. artikulua 1. apartatuari f) letra gehitzen zaio; hona testua:

“f) Pertsona juridikoek eta entitateek beren egiazko titularren berri eman behar diote Zerga Administrazioari. Horretarako, egiazko titularrak izango dira Kapitalak zurriztearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikulua 2. apartatua zehazten direnak.”

Hiru. 92. artikulua 1. apartatua d) eta q) letrak aldatzen dira eta beste bi letra gehitzen dira apartatu berean, s) eta t); honela geratzen dira:

“d) Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, funts publikoen edo Europar Batasunaren kargurako laguntzak edo dirulaguntzak lortzean delitu fiskala prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko, baita iruzurra, ustelkeria eta Europar Batasunaren finantza interesei eragiten dieten interes gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko ere.”

“q) Aktiboak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko Bulegoarekiko lankidetzan zigor prozesu batean enbargatu edo konfiskatu daitezkeen ondasunak eta eskubideak lokalizatzeko behar diren datuen, txostenen edo aurrekariaren lagapenaren bidez, gertakari hori egiaztatu ondoren.”

“s) Lankidetzan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, Etxeko langileen lan baldintzak eta Gizarte Segurantzaren hobetzeko irailaren 6ko 16/2022 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako.”

“t) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko kontratuak adjudikatzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduren ardura duten erakundeekin lankidetzan aritzea interes gatazken arriskuaren analisi sistematikoari dagokionez.”

Lau. Aldatu egiten da 256. artikuluko 7. apartatua bigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

“Artikulu honetan araututako erantzukizun adierazpenaren prozeduraren izapidetzeak irauten duen artean hartutako kautelazko neurriei honako foru arau honetako 78.6.e) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.”

Bost. Aldatu egiten da hemeretzigarren xedapen gehigarriaren d) letraren lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

“d) Titulartasunean dauden ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideei buruzko informazioa, 50.000 eurotik gorako balio unitarioa badute eta, erregelamendu bidez zehazten den unean, atzerrian badaude edo egon badira.”

Sei. Aldatu egiten da hogeigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

“Hori dela eta, organo horiek foru arau honetako 90., 91. eta 166. artikuluetan ezarritako ahalmenak erabili ahal izango dituzte, delituekin zerikusia duten pertsonen ondareari buruzko txostenak egin ahal izango dituzte eta foru arau honetako 78. artikuluko 8. apartatua arautzen diren kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dituzte.”

Zazpi. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Hogeita bederatzigarrena.

Foru arau bidez besterik ezarri ezean, ezingo zaio zerga kenkari edo pizgarri bera pertsona, erakunde edo zergapeko bati baino gehiagori aplikatu gastu edo inbertsio beragatik, eta ezingo zaio zerga kenkari edo pizgarri bati baino gehiago aplikatu pertsona, entitate edo zergapeko berari gastu edo inbertsio beragatik.”

## II. TITULUA ZENBAIT ZERGA ALDATZEA

### 2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 18. apartatuaren a) letra aldatzen da eta beste bi apartatu gehitzen dira artikulua amaieran (40. eta 41. apartatuak). Honela geratzen dira:

“a) Europar Batasunak nekazaritzako politikaren barruan esne ekoizpenari, mahastizaintzari, madari, mertxika edo nektarinen laborantzari behin betiko uzteagatik edo bananondoak, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauzteagatik eta azukre erremolatxaren eta azukre kanaberaren laborantzari behin betiko uzteagatik ematen dituen laguntzak jasotzea, eta klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenen (ekoerregimenak) laguntzak jasotzea.”

“40. Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko urriaren 3ko Aginduaren itzalpean (horren bidez «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa arautzen eta iragartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko) edo horren ordezkoko aginduaren itzalpean onuradunei ematen zaizkien laguntzak, eta beste lurralde administrazio batzuek xede berarekin ematen dituzten beste laguntza batzuk.

41. Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren itzalpean (seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen dekretua) edo xede bereko ordezkoko dekretuaren itzalpean onuradunei ematen zaizkien laguntzak.”

Bi. Beste xedapen gehigarri bat eransten da, hogeita hamabosgarrena, eta honela geratzen da idatzita:

“Hogeita hamabosgarrena. Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzat aurreikusitako laguntzatik salbuestea.

Zerga honetatik salbuestita egongo da diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako laguntza, zeina onetsi baitzuen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartera berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak 74. artikuluan.”

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikulua 13. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“13. Entitate kudeatzaile eskudunak onetsitako langabezia prestazioak, prestazio horiek ordainketa bakarraren modalitatean ordaintzea arautzen duen ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan eta Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 34. artikuluan ezartzen den ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbatekoak arau xedapen horietan ezarritako helburuetarako erabiltzen badira eta bertan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezinbestekoa da hauetako bat gertatzea: zergaduna lan sozietate edo lan elkartuko kooperatiba batean sartu bada edo ekarpena egin badu merkataritzako entitate baten kapitalera, akzioa edo partaidetza bost urtean mantentzea; langile autonomoa bada, jarduerari bost urtean eustea. Akzioa edo partaidetza edo jarduera ekonomikoa bost urtez mantentzea ez da beharrezkoa izango hura ez betetzeko arrazoia enpresa edo lehiaketa prozedura baten ondorioz likidatzea denean. Langile autonomoen

kasuan, ez da eskatuko bost urteko epealdi hori baldintza ez betetzeko arrazoia urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren testu bateginaren 331. artikulua 1. apartatuaren a) letraren 1. eta 3. zenbakietan xedatzen denaren ondorioa bada.

Halaber, salbuetsita egongo dira borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek deseginizat jotako kooperatiben bazkide langileei eta lan bazkideei –Gizarte Segurantzaren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen araubideari atxikitakoei- behin betiko birkokatzen diren kooperatiben kapital sozialerako ekarpenak egiteko behin betiko birkokapenagatik onartutako enplegurako laguntza ekonomikoak.

Aurreko paragrafoan arautzen diren kasuetan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Gaindikina lanaren etekin gisa kargatuko da.”

Bi. 23. artikulua 3. apartatuaren b) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“b) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada, beraren desgaitasuna ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobarria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun-jardueren mugak ebaluatzeako azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukaten pertsonak. Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten langile aktibo desgaituei ere.”

Hiru. Aldatu egiten da 41. artikulua 2. apartatuaren d) letrako lehenengo betekizuna, bai eta laugarren betekizunaren lehen paragrafoa ere, eta honela geratzen dira idatzita:

“Lehenengoa. Langile eskuratzailerik lan egin behar izan dute enpresan edo entitatean edo taldearen entitateetan eskuraketa egin aurreko bost urteetatik bi urtetan gutxienez. Ondorio horietarako, entitate horietariko batean lan egindako denbora gisa zenbatuko dira langileak senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzian emandako aldiak.”

“Laugarrena. Aurreko bigarren baldintzako aldian eskuratzailerik bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka daukan partaidetza (ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena, ondorengoena eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena barne) ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa. Entitatea talde bateko kidea bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.”

Lau. Aldatu egiten da 48. artikuluko 2. apartatuaren c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

“c) Itzulketaren, eskualdatzearen edo, behar denean, harpidetzaren edo eskuratzearen xedea ez izatea uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduak, zeinak Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen baitu, 79. artikuluan xedatutako mota bereko sozietateetako edo inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzak edo akzioak, direnak direla kotizatzen duten merkatu arautua edo negozioazio sistema aldeaniztuna eta erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziazat hartzen duten indizearen osaera.”

Bost. 56 bis artikulua 1. apartatuaren a) letra aldatzen da eta beste hiru apartatu gehitzen dira artikuluan (3., 4. eta 5. apartatuak). Honela geratzen dira:

“a) Bereziki kualifikatutako lanak egiteko lekualdatzea Espainiako lurraldera, baldin eta lan horiek, zuzenean eta nagusiki, ikerketako eta garapeneko jarduerekin, jarduera zientifikoekin, teknikoekin, finantza arlokoekin edo antolaketa, gerentzia eta kontrol ekonomiko-finantzariokoekin edo merkataritzako jarduerekin lotuta badaude.”

“3. Artikulu honetan ezarritako araubidea Gizarte Segurantzaren ondorioetarako enplegatuari dagokion araubidea gorabehera aplikatuko da, eta araubide orokorra ez denean, araubide horri dagokion eginkizunen baliokideak hartuko dira kontuan.

Ondorio horietarako, foru arau honen 56 quater artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren ekintzaileei aplikatuko zaie araubidea, baldin eta jarduera ekonomikoa egiten badute edo jarduera hori egiten duten entitatearen kapitalean akzioak edo partaidetzak badauzkate, betiere jarduera pertsona juridiko baten bidez eginez gero.

4. Artikulu honetan ezarritako zerga tratamendua beren konturako jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunei ere aplikatuko zaie, foru arau honen 56 quater artikulua 3. paragrafoan aipatzen direnak barne, edo horietatik lortzen dituzten etekinak jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen direnean, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, betiere artikulu honen 1. apartatua ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

Kasu horretan, artikulu honen 2. paragrafoaren a) eta b) apartatuetan aipatzen diren ehunekoak jarduera ekonomikoen etekin garbiaren gainean aplikatuko dira, foru arau honen 25. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatu, eta ezin izango dira baliatu kasuan kasuko jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko zuzeneko zenbatespen metodoaren modalitate sinplifikatua.

Era berean, paragrafo honetan aipatzen diren kasuetan, ez da beharrezkoa izango artikulu honen 1. apartatuaren c) eta e) letretan ezartzen diren baldintzak betetzea.

5. Zergaldi bakoitzean aurreko apartatua xedatzen dena aplikatu nahi bada, horretarako hautapena egin behar da autolikidazioa aurkeztean. Hautapena autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitutakoan aldatu ahal izango da, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egiten ez badu.”

Sei. 56 quater artikulua gehitzen da. Hona testua:

“56 quater artikulua. Ordainsari bereziak ekintzailearen esparruan.

1. Artikulu honen 3. apartatua aipatzen diren ekintzaileek erabakitzen badute berei edo beren jardueran edo aipaturiko apartatua azaltzen diren entitateetan enplegaturik daukaten pertsonen dagokien lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinen zati bat entitatearen akzioak edo partaidetzak edo akzio eta partaidetzen balioaren bilakaerari lotutako eduki ekonomikoko bestelako eskubideak eskuratzeko aukerak emanez gauzatuko dela, ordainsari horiek ez dira lanaren edo jarduera ekonomikoen etekintzat joko aitortzen diren unean.

Horren ordez, aurreko paragrafoan aipatzen diren ordainsariak galdagarriak diren unean jasotzen duten zenbateko osoa ondare irabazitzat joko da eta aurrezkiaren zerga oinarrian sartu eta konpentsatuko da, foru arau honen 66. artikulua 1. apartatuaren b) letran ezartzen denari jarraikiz.

2. Bereziki, aurreko apartatua aipatzen diren ordainsariak entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko aukerak emanez gauzatzen diren kasuetan, ez da etekinik konputatuko artikulu honen 1. apartatua ezartzen denaren arabera harik eta akzio edo partaidetza horiek eskualdatu arte, eta orduan 0 euroko eskurapen balioa edukiko dute edo, bestela, eskuratu zirenean ordaindutako zenbatekoaren arabera, ondare irabazia kalkulatzeko eta aurrezkiaren zerga oinarrian sartzeko eta konpentsatzeko, foru arau honen 66. artikulua 1. apartatuaren b) letran ezartzen denarekin bat etorritik.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako pertsona hau jotzen da ekintzaile: zerga honen zergaduna, jarduera ekonomiko berri bat egiten duena edo jarduera ekonomiko berri bat egiten duen entitate baten eraketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duena eta entitatearen kapitalean gutxienez ehuneko 10eko partaidetza eskuratzeko duena eta jardueraren garapenean pertsonalki inplikatzeko dena entitatearekin lan harremana edo zerbitzuak emateko harremana ezarrita.

Apartatu honetan ezartzen den partaidetza ehunekoaren baldintza ez da joko ez betetzat ekintzaileak daukan partaidetza ehunekoa aurreko apartatuan ezarritakoa baino txikiagoa izateko arrazoiak denean hurrengo finantzaketa-saioetan kapital gehikuntza egitea entitatearen jardueraren gorakadaren arabera, erregelamenduan zehaztutakoari jarraikiz.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomiko berri bat egiten ari den zehazteko, foru arau honen 25. artikulua 5. apartatuaren bigarren paragrafoan eta 90. artikulua 1. apartatuaren bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. Artikulu honetan ezarritako zerga tratamendua aplikatuko zaie akzioei edo partaidetzei buruzko aukerei edo eduki ekonomikoko beste eskubide mota batzuei, ekintzaileek jarduera ekonomikoa egiten duten lehenengo bost urteetan edo artikulu honetako 3. paragrafoan aipatzen diren entitateak eratzten direnetik aitortzen diren akzioen edo partaidetzen balioaren bilakaerari lotutakoei.”

Zazpi. 57. artikulua 2. apartatuari d bis) letra gehitzen zaio eta j) letra aldatzen da; hona:

“d bis) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 308. artikuluan arautzen den Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko kotizazioaren erregularizazioa, zenbateko bat gehiago ordaintzearen edo erregularizatuko aldian egindako behin-behineko kotizazioa murriztearen ondoriozkoa dena, zergadunak ordainketa gehigarria edo itzulketa lortzen duen zergaldira egotziko da.

Hala ere, zergadunak bi aukera edukiko ditu erregularizazioaren ondoriozko kotizazio gehikuntza edo murrizketa kotizazioen zergaldira egozteko: autolikidazio osagarria egitea, zehapenik eta errekarigabe eta berandutze interesik sortu gabe, edo zuzenketa eskaera aurkeztea. Autolikidazio osagarria edo zuzenketa eskaera erregularizatutako zenbatekoa ordaintzen edo lortzen den egunetik zergaren autolikidaziorako hurrengo epealdia amaitu bitarteko aldian aurkeztu behar da.

Besteren konturako langilearen Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko kotizazioak entitate enplegatzaileak ordaintzen baditu, gauzatan jasotako ordainsari hori gastua erregularizatzen den zergaldi berean erregularizatu behar da.”

“j) Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeen ondoriozko ondare galerak egotzi ahal izango zaizkio inguruabar hauetakoren bat barnean duen zergaldiari:

1. Eraginkor bihurtzea honako hauetakoren batean ezarritako kita bat: Konkurtso Legearen testu bateginaren (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) bigarren liburuaren II. tituluaren aipatutako judizialki homologagarria den birfinantzaketa akordio batean; edo testu bateginaren bigarren liburuaren III. tituluaren aipatutako ordainketen akordio estrajudizial batean.

2. Zorduna konkurtso egoeran dagoela, eraginkor bihurtzea kredituaren zenbatekoan kita bat egitea adosten duen hitzarmena, Konkurtso Legearen testu bateginaren (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) lehen liburuaren VII. tituluaren VI. kaptuluaren xedatutakoarekin bat etorritik; halakoetan, kitaren zenbatekoa izango du galerak.

Bestelakoetan, konkurtso prozedura amaitzea eta artean oraindik ordaindu gabe egotea kreditua, baldin eta ez bada adosten konkurtsoa amaitzea Konkurtso Legearen testu bateginaren (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 465. artikulua 1., 3. eta 5. zenbakietan aipatutako kausak direla eta.

3. Urtebete betetzea kreditua exekutatzeko helburuarekin hasi den konkurtsoaz bestelako prozedura judiziala hasi zenetik kreditua ordaindu gabe.

Baldin kreditua j) letran aipatutako ondare galera zenbatu ondoren kobratu bada, ondare irabazi bat egotziko da, kobrantza hori gertatzen den zergaldian kobratutako zenbatekoa adinakoa.”

Zortzi. 57. artikulua 2. apartatuari beste letra bat gehitzen zaio, m) letra; hona testua:

“m) Zergaldi jakin batean gertatutako kalteek eragindako galerengatik nekazaritzako edo abeltzaintzako aseguruak ematen dituzten konpentsazioen zenbateko guztiak konpentsatzen diren kalteak gertatu diren zergaldira egotzi ahal izango dira edo, bestela, konpentsazio guztiak edo batzuk jasotzen diren lehen zergaldira.

Aseguruak konpentsazioak, kalteak gertatu diren zergaldiari dagozkionak, zenbait zergalditan zehar jasotzen badira, denak egotziko dira kalteak gertatu diren zergaldira edo, bestela, konpentsazio guztiak edo batzuk jasotzen diren lehen zergaldira. Hori dela eta, behar denean autolikidazio osagarriak aurkeztuko dira, errekarurik eta berandutze interesik gabe.

Letra honen lehen paragrafoan xedatzen dena diru sarreren eta gastuen denbora egozpenarako aplikatzen ari den edo aplikatu izan den irizpidea gorabehera aplikatuko da.

Errenten denbora egozpenaren erregela berezi hori aplikatuko bada, ezinbestekoa da nekazaritzako edo abeltzaintzako aseguruak galerengatik ematen dituzten konpentsazioak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru aginduan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten gertaeren edo ezbeharren ondoriozkoak izatea; gainera, foru agindu horretan zehaztuko da zer ekitaldiren artean hauta dezakeen zergadunak konpentsazioak egozte.

Nolanahi ere, erregela berezi honetan xedatzen dena aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, zeinak egokitzat jotzen dituen neurriak eta prozedurak onartuko baititu, berariazko jakinarazpena egitea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.”

Bederatzi. 73. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“73 artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa.

1. Foru arau honen 97. eta 98. artikuluetan xedatzen denaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, 4.800 euroko murrizketa egin daiteke urteko autolikidazioko zerga oinarri orokorrean.

2. Aurreko apartatuko murrizketa 4.169 eurokoa izango da foru arau honetako 98. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen autolikidazioan.”

Hamar. 75. artikuluko 1. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“1. Likidazio oinarri orokorrari honako eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA/ GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA EUROAK	LIKIDAZIO OINARRIAREN GAINERAKOA/ GEHIENEZ (EUROAK)	TASA APLIKAGARRIA (EHUNEKOA)
0,00	0,00	17.720,00	23,00
17.720,00	4.075,60	17.720,00	28,00
35.440,00	9.037,20	17.720,00	35,00
53.160,00	15.239,20	22.750,00	40,00
75.910,00	24.339,20	29.220,00	45,00
105.130,00	37.488,20	35.000,00	46,00
140.130,00	53.588,20	64.140,00	47,00
204.270,00	83.734,00	hortik aurrera	49,00

Hamaika. 77. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“77 artikulua. Kuotaren murrizketa orokorra eta murrizketa despulatzeako arriskuan dauden gunek edo eremuetan bitzizeagatik.



1. Zergadunek 1.583 euroko murrizketa aplika dezakete autolikidazio bakoitzeko kuotan, foru arau honetako 74. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Ohiko bizilekua 500 biztanle eta gutxiagoko landa-eremu edo -herriguneetan duten zergadunek, aurreko apartatuan aipatzen den murrizketaz gain, 200 euroko beste murrizketa bat aplikatuko dute kuotaren gainean autolikidazio bakoitzeko, despulatuzeko arriskuan dauden guneetan edo eremuetan bizitzeagatik.”

Hamabi. 79. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplika daiteke:

a) 668 euro urtean lehenengoagatik.

b) 827 euro urtean bigarrenagatik.

c) 1.393 euro urtean hirugarrenagatik.

d) 1.647 euro urtean laugarrenagatik.

e) 2.151 euro urtean bosgarrenarengatik edo hortik aurrerako ondorengo ahaide bakoitzagatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko, aurreko apartatuaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera, beste 386 euro kendu daitezke urtean.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik (adin hori barne) hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko, aurreko apartatuaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera, beste 62 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hau ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.”

Hamahiru. 79. artikuluko 6. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira adin txikikoak babesteko eskumena duen erakunde publikoaren aurrean hitzartutako tutoretza edo harrera dela eta zergadunarekin lotuta dauden pertsonak, edo haren gaineko kuradoretza gauzatzen dutenak, ordezkaritza ahalmenarekin.”

Hamalau. 81. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Zergadunek 385,20 euroko kenkaria aplika dezakete urte natural osoan etengabe eta jarraian beraiekin bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik.”

Hamabost. 81 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Zergaren sortzapen egunean 39/2014 Foru Dekretuan (abuztuaren 1ekoa, Arabako autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen) arautzen den laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titular diren zergadunek, bertan eta beraren garapenean ezartzen diren baldintzak betez gero, kenkaria aplikatu ahal izango dute laguntzaile pertsonala kontratatzen dutenean. Kenkariaren zenbatekoa zergadunaren mendekotasunaren edo desgaitasunaren arabera izango da:

MEDEKOTASUN EDO DESGAITASUN GRADUA	KENKARIA (EUROAK)
Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua)	392,40
Mendekotasun larria (II. gradua)	652,80
Mendekotasun handia (III. gradua)	1.305,60

Aurreko paragrafoan aipatzen den mendekotasun edo desgaitasun gradua honako bi errege dekretu hauetan ezartzen denaren arabera neurtuko da: 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, mendekotasuna baloratzeko baremoa, besteren menpean bizi diren pertsonen



autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa, onetsi duena; 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena. Gainera, mendekotasun edo desgaitasun gradua arau bidez ezartzen denari jarraikiz frogatuko da.”

Hamasei. 82. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Desgaitasuna daukan edo mendekotasunean dagoen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta zenbatekoa mendekotasunaren edo desgaitasunaren graduaren arabera izango da (gradua arau bidez zehaztuko da). Hona hemen taula:

MENDEKOTASUN EDO DESGAITASUN GRADUA	KENKARIA (EUROAK)
Desgaitasuna ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65etik beherakoa	932,40
Desgaitasuna ehuneko 65koa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua)	1.331,40
Mendekotasun larria (II. gradua)	1.597,05
Mendekotasun handia (III. gradua)	1.991,85

Aurreko paragrafoan aipatzen den mendekotasun edo desgaitasun gradua honako bi errege dekretu hauetan ezartzen denaren arabera neurtuko da: 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, mendekotasuna baloratzeko baremoa, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa, onetsi duena; 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena.

Kenkari bera aplika daiteke desgaitasuna edo mendekotasuna daukan ezkontideagatik edo izatezko bikotekideagatik, apartatu honetan ezarritako betekizunak betez gero.”

Hamazazpi. 83. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Hirurogeita bost urtetik gorako zergadun bakoitzeko 385 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak hirurogeita hamabost urte baino gehiago baditu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 700 eurokoa izango da.

1. apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak 20.000 euroko edo gutxiagoko zerga oinarria izan beharko du.

2. 20.000,00 eurotik gorako eta 30.000,00 eurotik beherako zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 385,00 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0385 eginez ateratzen den emaitza.

3. 20.000,00 eurotik gorako eta 30.000,00 eurotik beherako zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 700 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0700 eginez ateratzen den emaitza.”

Hemezortzi. 87. artikulua 4 bis apartatuaren lehenengo paragrafoaren lehenengo tartekia aldatzen da eta honela geratzen da:

“4 bis. Artikulu honen 5. apartatuaren c) letran ezartzen diren kasuetan, mendetasuna larria (II. gradua) edo handia (III. gradua) bada, kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:”

Hemeretzi. 89. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoaren lehenengo tartekia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria egin ahal izango dute, gizonak badira, eta ehuneko 20koa, emakumeak badira, zergaldian zehar ondoren aipatzen diren entitateetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko eskudirutan ordaindutako kopuruengatik:”

Hogei. 90 bis artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“90 bis artikulua. Kenkaria jarduera ekonomikoa hasteagatik.

1. Lehenengo aldiz jarduera ekonomiko bati ekiten dioten zergadunek hura egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak badauzkate, 2.100 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute.

Jarduera ekonomiko berri bati zenbait zergadunek ekiten badiote lehenengo aldiz, aurreko paragrafoko kenkaria jarduera ekonomikoa zuzenean egin ohi duten zergadun guztien artean hainbanatuko da.

2. Jarduera ekonomiko bati lehen aldiz ekiten bazaio 500 biztanle eta gutxiagoko lantza-eremu edo -herriguneetako batean, kenkaria 2.100 eurokoa izango da, jarduerari ekin diotenen kopurua gorabehera.

Jarduera ekonomiko bati lehen aldiz ekiten diona emakumea bada, jarduera zuzenean egin ohi badu eta aurreko paragrafoan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen baditu, aurreko paragrafoko kenkariari 500 euro gehitu ahal izango zaizkio.

Aurreko bi paragrafoetan xedatzen dena aurrean aipatutako zonetan eta guneetan etengabe egiten diren jarduera ekonomikoei baino ez zaie aplikatuko, baldin eta zona eta gune horietako bezeroekiko zuzeneko harremanen bidez eta bertan egonda egiten badira.

3. Jarduera ekonomiko berri bat hasi dela egiaztatzeko beharrezkoa izango da jarduera ekonomiko berri modu errealean eta eragingarrian agertzea.

4. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan adierazitako zenbatekoraino kendu gabeko kopurua ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango da.

5. Artikulu honetako kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtean egitea eta urte osoa egitea. Beraz, ez dira onartuko kenkarirako sasoiko jarduerak ez asteburuetakoa.

6. Kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez badira, bidegabe jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta bidezko berandutze interesak ordaindu beharko dira. Zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu behar zaio. Hala ere, zergadunak bidegabe kendutako diru kopuruak lehenago itzuli ahal izango ditu, bidezko berandutze interesekin.

7. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 115. artikulua 3. apartatua ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan ezarritako kenkarietako bat aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da ekitaldiko autolikidazioan zergadunak berariaz adieraztea aplikatu nahi duela. Beraz, foru arau honen 105. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatzen dena aplikatuko da.”

Hogeita bat. 90 quater artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Zergadunek lanean ari diren entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonak badira, edo ehuneko 20koa, emakumeak badira.”

Hogeita bi. 105. artikulua 1. apartatuaren e) letra aldatzen da eta apartatu horri j) letra gehitzen zaio; hona:

“e) Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak (88., 89., 89 bis, 90., 90 bis eta 90 quater artikuluetan arautzen dira).”

“j) Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko kotizazioaren gehikuntza edo murrizketa behar den zergaldira egozte, 57. artikulua 2. apartatuaren d bis) letzan arautzen denarekin bat etorritik.”

Hogeita hiru. 109. artikulua 1. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio amaieran; hona testua:

“Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 42. artikuluan arautzen denaren arabera zergadunarekin lotuta dagoen entitate batek ordaindutako errentei atxikipena aplikatu behar bazaie, atxikipena zergadunaren kargan soilik kendu ahal izango da, benetan egin bada eta Zerga Administrazioari ordaindu bazaio.”

Hogeita lau. Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Hogeita hamaseigarrena. Banakako pentsioen produktu paneuroparrak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan (Erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparrari buruzkoa da) araututako banakako pentsioen produktu paneuroparrei pentsio planen tratamendua aplikatuko zaie zerga honetan.

Bereziki:

a) Aurreztaileak banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenek zerga oinarri orokorra murriztu ahalko dute pentsio planei egindakoen baldintza berberetan, eta foru arau honen 71. artikuluan gizarte aurreikuspeneko sistemetarako aurreikusitako gehieneko muga bateratua sartuko dira.

b) Banakako pentsioen produktu paneuroparren onuradunek jasotzen dituzten prestazioak lan etekintzat hartuko dira beti, eta ez dira oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren mende egongo.

c) Baldin eta zergadunak pentsio indibidualen produktu paneuroparrei egindako ekarpenetatik eratorritako eskubide ekonomikoak baditu, osorik edo partzialki, pentsio plan eta funtsen araudian aurreikusitakoez bestelako kasuetan, zerga oinarrian bidegabe egindako murrizketak itzuli beharko ditu, dagozkion autolikidazio osagarrien bidez, berandutze interesak barne. Jasotako zenbatekoek erregularizatutako ekarpenen zenbatekoa gainditzen badute, lan etekin gisa tributatu dute jasotzen diren zergaldian.”

Hogeita bost. Hogeita zortzigarren xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko alde zuzeneko ezarritako neurriak ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hura garatzen duten xedapen guztietan ezarritakoaren arabera berrikusten diren bitartean (lege horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legedi zibil eta prozesala aldatzen da), lehen ordezkari-ahalmena duten eta kuradoretzaren menpe dauden pertsonak eta foru arau honen 70., 72., 79., 82. eta 85. artikuluetan eta hamaikagarren xedapen gehigarrian aipaturiko ordezkari-ahalmen horiek erabiltzen dituzten pertsonak aipatzean, hauexek direla ulertu behar da, hurrenez hurren: Kode Zibilean ezarritako arrazoen ondorioz judizialki deklaratuak ezgaitasuna duten pertsonak eta aurrekoei dagokienez tutore kargua betetzen dutenak.”

### 3. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Lehenengoa. Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 39. artikulua 5. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta aldarazi da; idatz-zati horrek hurrengo idazkera izango du:

“a) Europar Batasunak nekazaritzako politikaren barruan esne ekoizpenari, mahastizaintzari, madari, mertxika edo nektarinaren laborantzari behin betiko uztearen edo bananondoak, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauztearen ziozko laguntzak jasotzea, bai eta azukre erremolatxaren eta azukre kanaberaren laborantzari behin betiko uztearen ziozkoak ere. Era berean, klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideetarako laguntzak jasotzea (ekorerregimenak).”

Bi. 59. artikulua 3. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“3. Zerga oinarri positiboak lortzen dituzten zergadunen kuota efektiboa zehazteko kuota likidoaren gaineko kenkariak aplikatzeak, foru arau honen 62.etik 64.erabitarako artikuluetan eta 65. artikuluan aipatzen diren kenkariak izan ezik, ezin du ekarri kuota efektiboa, oro har, zerga oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 17 baino txikiagoa izatea. Foru arau honen 56. artikulua 1. apartatuko c) letran aipatzen dituen entitateen kasuan, ehuneko hori ehuneko 13koa izango da.”

Bigarrena. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan:

Bat. 11. artikulua 1. apartatuaren i) letra aldatzen da, apartatu horren k) letrari edukia ematen zaio, eta apartatu horren beraren amaieran bi apartatu gehitzen dira, l) eta m). Hona testuak:

“i) Inbertsioen berme funtsak, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legeak arautuak.”

“k) Europako epe luzerako inbertsio funtsak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduan arautuak.

l) Europako arrisku kapitaleko funtsak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko Arrisku Kapitaleko Funtsei buruzko 345/2013 (EB) Erregelamenduan arautuak.

m) Gizarte ekintzaitzako funtsak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko Europako gizarte ekintzaitzako funtsei buruzko 346/2013 (EB) Erregelamenduan arautuak.”

Bi. 23. artikulua 6. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“6. Aurreko apartatua aipatutako kasuetan, eragiketa kontabilizatu behar den moduagatik erakundeak ez badu inolako errentarik sartzen zerga oinarrian eta partaidetzaren balioa kendu behar badu, honela kalkulaturako zerga konputatu ahal izango du zerga ondorioetarako: aurreko paragrafoan ezarritako erregela partaidetzaren eskualdaketa dela eta aipatutako zergetako baten karga jasan duten mozkinen zenbatekoari aplikatuta ateratzen dena.”

Hiru. 24. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“3. Artikulu honetan xedaturikoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da eskuratutako partaidetzetatik sortutako errentak foru arau honetako 33. artikulua 1. apartatua eta 34. artikulua 1. eta 3. apartatuetan ezarritako tratamendua jaso ahal izateko modukoak izatea.”

Lau. 31. artikulua 5. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“5. Aurreko 1. apartatuko a) letran ezarritakoa gorabehera, eta foru arau honen 31bis artikuluko 1. apartatua xedatutakoaren kalterik gabe, kengarriak izango dira ondoko betebeharrak eta baldintza hauek jasotzen dituen partaidetzako mailegu batek sortutako interesak, finkoak nahiz aldakorrak, salbu eta foru arau honetako 47. artikuluan xedatutakoa aplikagarria zaienak.”

Bost. 39. artikulua 2. zenbakiaren amaieran lerrokada bat gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Entitate batek lehenengoarekin lotutako beste entitate bati ordaindutako atxikipenei lotutako errenten kasuan, foru arau honen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, atxikipenak azken hori zergapetzean soilik izango dira kengarriak, zerga administrazioan egin eta benetan sartu diren heinean.”

Sei. 40. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Aurreko apartatuaren e) eta f) letretan aurreikusitako kasuetan, entitateak bere zerga oinarrian sartuko du eskuratutako elementuen merkatuko balioaren eta entregatutako zerga balioaren arteko aldea.”

Zazpi. 40. artikulua 6. eta 7. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“6. Erakundeak desegitean eta bazkideak bereiztean, haien zerga oinarrian sartuko da jasotako elementuen merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitate balioaren arteko aldea.

7. Bat egitean, erabateko zatiketan edo zatiketa partzialean, bazkideen zerga oinarrian sartuko da jasotako partaidetzaren merkatuko balio normalaren eta deuseztatutako partaidetzaren kontabilitate balioaren arteko aldea.”

Zortzi. 41. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Ondare elementuak Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batera transferitzen direnean, baldin eta Estatu horrek Espainiarekin edo Europar Batasunarekin akordioa egin badu zerga kredituen kobrantzan elkarri laguntzeko, eta akordio hori Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan aurreikusitako elkarrekiko laguntzaren parekoa bada (Zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruzko Zuzentaraua), zergadunak aukeratu ahal izango du aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuta ateratzen den zerga zorra zatika ordaintzea, urtean bosten bat ordainduz, baldintza hauek betetzen badira, betiere:

a) Zergadunak ondasunen zerrenda bat aurkeztu behar du aurreko apartatuko a) letraren kasuan, edo zerga honengatik aurkeztu behar duen azken autolikidazioan, edo 1 apartatuko b) letraren kasuan, aurreikusitako aktiboen transferentzia egiten den zergaldiko autolikidazioan. Aurreko 1 apartatuan xedatutakoa aplikatu behar zaien ondare elementuak agertuko dira banan-banan zerrenda horretan, eta elementu bakoitzaren zerga balioa, eta bakoitzaren merkatu balio normalaren eta zerga balioaren arteko aldea, bai eta elementu bakoitzari dagokion kuota osoaren zatiaren zenbatekoa ere.

b) Kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioaren bidez edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bidez kuota kobratuko dela bermatu behar da, hain zuzen ere zergadunak apartatu honetan ezarritakoaren moduan zatikatu nahi duen ordainketaren zenbatekoa, baldin eta ez ordaintzeko arrisku frogagarria eta egiazkoa badago.

Zerga bilketako organoak ez ordaintzeko arriskua sumatzen badu lehenengo zatia ordaintzeko borondatezko epealdia amaitu ondoko sei hiletan, hori zergadunari jakinaraziko zaio, errekerimendu bidez, berme nahikoak aurkez ditzan hamar eguneko epealdian, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Errekerimenduari erantzun ezean edo, erantzun arren, berme nahikorik aurkeztu ez dela edo bermearen beharrik eza behar bezala justifikatu ez dela irizten bazaio, ordaindu gabeko zor osoa eskatuko da Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 61.2 artikuluan aipatzen dituen epeetan. Epealdi horretan sarrerarik egin ezean, betearazte aldia hasiko da eta premiamendu prozedurari ekin beharko zaio Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 171.1 artikuluan ezartzen den bezala.

Aurreko 1. apartatuan azaldutako inguruabarra gertatzen den zergaldiko kasuan kasuko zergaren autolikidazioan soilik baliatu ahal izango da aukera hori.

Aurreko 1. paragrafoko a) letran aipatzen den kasuan, urteko gainerako lau zatikietako bakoitzaren epemuga eta galdagarritasuna, horietako bakoitzak sortutako berandutze interesekin batera, aurreko paragrafoan aipatzen den zergaldiaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitzen denetik urtebete igaro ondoren gertatuko da.

Aurreko 1. paragrafoko b) letran aipatutako kasuan, zergadunak urteko gainerako lau zatikietako bakoitza sartuko du, haiei dagozkien berandutze interesekin batera, hurrengo lau urteetako zergaldi bakoitzeko zergaren aitorpenarekin batera.

Zergadunak eskatu ahal izango du murriztu dadila b) letran xedatzen dena aplikatzearen ondorioz eman beharreko bermea, egindako ordainketak kuota geroratu osoan hartzen duen proportzio berean.

Apartatu honetan jasotako berezitasunak izan ezik, zatikatze horri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko zaio, berandutze interesen sortzapenari eta bermeak eratzeari dagokienez.”

Bederatzi. 41. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“3. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, zatikapenak indarra galduko du eta gainerako kuota zatikatua osorik eskatu ahal izango da, dagozkion berandutze interesekin batera, honako kasu hauetan:

a) Eragindako ondare elementuak hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean.

b) Eragindako ondare elementuak geroago lekualdatzen direnean aurreko 2. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen ez den hirugarren estatu batera.

c) Zergadunak, geroago, aurreko 2. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen ez den hirugarren estatu batera aldatzen duenean bere egoitza fiskala.

d) Zergaduna likidazioan dagoenean edo betearazpen kolektiboko prozedura batean sarturik dagoenean, esaterako konkurtsoan edo pareko edozein prozeduratan.

e) Zergadunak sarrerarik egiten ez badu zatikako ordainketarako aurreikusita dagoen epealdian.

Apartatu honetako a) eta b) letretan aipatzen diren elementuak eskualdatzen edo aldatzen diren kasuetan, ondare elementuon eskualdaketa edo aldaketa partziala izanez gero, zatikatzeak bere indarra galduko du soil-soilik elementu horien merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia positiboari dagokion zerga zorraren zati proportzionalerako, baldin eta zergadunak frogatzen badu eskualdaketa edo aldaketa horrek ondare elementuetako batzuei bakarrik eragiten diela.

Apartatu honetako a), b) eta c) letretan ezartzen den moduan zatikatzeak indarra galtzen duenean zenbateko jakin batzuetarako, zenbateko horien sarrera hilabeteko epean egin beharko da, zatikatzeak indarra galtzen duenetik hasita. Hilabeteko epe horretan dirua ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura hasiko da, zatikapenak indarra galdu duen kopuruei dagokienez soilik, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 61. artikulua 5. apartatuan aipatzen diren epeetan eskatuko da. Sartzen den zenbatekoa zatikatzearen azken mugaeguneratzeei aplikatuko zaie. Eskatutako zenbatekoak epealdi horietan ordaintzen ez badira, mugaeguneratutzat joko da gainerako zor zatikatua, halakorik bada, eta premiamendu prozedura hasiko da hura ordainarazteko.

Apartatu honetako d) letran aipatzen den moduan zatikatzeak indarra galduz gero, ordaindu gabeko zorra muga eguneratuko da, eta zatikatzeak indarra galtzen duenetik hasita hilabetean hura osorik ordain dadila eskatu ahalko da. Epealdi horretan diru sarrerarik egin ezean, betearazte aldia hasiko da eta premiamendu prozedurari ekin beharko zaio Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 171.1 artikuluan xedatzen duen bezala.

Paragrafo honetako e) letran aipatzen den zatikatzea indargabetuz gero, premiamendu prozedura hasiko da bete ez den zatiki horri dagokionez soilik, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 61. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren epeetan eskatuko da. Honako hauek eskatuko dira: zatiki horren zenbatekoa, borondatezko epean ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik emandako epea amaitzen den egunera arte sortutako berandutze-interesak, eta betearazpen-aldiaren errekargua, bi kontzeptuen baturaren gainean.

Aurreko paragrafoaren arabera eskatutako zenbatekoak ordaindu ezean, mugaeguneratutzat joko dira ordaindu gabe dauden gainerako zatikiak, eta premiamendu prozedura hasi beharko da zor guztietarako. Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik ordaindu ez den zatikia ordaintzeko mugaegunera arte sortutako berandutze-interesak eskatuko dira.”

Hamar. 48. artikulua 2. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Espainiako lurraldeko ez-egoiliar den erakunde batek edo establezimendu iraunko batek lortutako errenta positibo osoa zergadunei egotziko zaie, baldin eta entitate horiek ez badute errenta hori eskuratzeko baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa egokirik, nahiz eta eragiketa errepikariak izan. Nolanahi ere, dibidenduen, mozkinetako partaidetzen edo partaidetzak eskualdatzetik eratorritako errenten kasuan, artikulua honetako 3. paragrafoan xedatutakoa beteko da beti.”

Hamaika. 48. artikulua 2. apartatuaren c) eta g) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“c) Foru arau honetako 42. artikuluko 3. apartatua ezartzen denaren arabera lotuta dauden pertsonak eta entitateek ondasunekin eta zerbitzuekin egiten dituzten eragiketak, baldin eta entitate ez-egoiliarak edo Espainiako lurraldean ez dagoen establezimendu iraunkorrak ez badu sortzen balio ekonomikorik edo sortzen duen balio ekonomikoa urria bada.”

“g) Aurreko a), b), d) eta e) letretan aipatzen diren ondasunak eta eskubideak eskualdatzea, errentak sortzen direnean.”

Hamabi. 48. artikuluko 4. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“4. Ez dira artikulua honetako 2. apartatua adierazitako errentak sartuko beren zenbatekoen batura gutxiago bada entitate ez-egoiliarak edo Espainian ez dagoen establezimendu iraunkorrek lortutako errenta guztien ehuneko 15 baino.

Apartatua honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aurreko 2. apartatuko i) letran xedatutakoaren ondorioz integratu behar diren errentei. Horrek ez du eragotziko errenta haiek kontuan hartzerik aurreko paragrafoan aipatzen den batura zehazteko.”

Hamahiru. 48. artikulua 12. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“12. Partaidetutako entitatearen egoitza edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean badago eta ez bada sartzen artikulua honetako 10. apartatua adierazten diren kasuetan, zergadunak artikulua honetan xedatutakoa aplikatzea saihestu ahal izango du frogatzen baldin badu partaidetutako entitatea benetan ezarrita dagoela egoitza daukan estatuan, eta beraren egitura ez dela huts-hutsik artifiziala, sozietateen gaineko zergaren zioz gutxiago ordaintzeko bakarrik antolatua; horretarako frogatu beharko du bere gaineko karga arindu duten transakzio guztiak entitate horren egoitza dagoen estatuan egindako prestazioei dagozkiela eta badutela interes ekonomikorik zergadunaren jarduerarako.”

Hamalau. 51. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Artikulua honetan xedatutakoari dagokionez, zerga ondorioetarako ondare garbitzat joko da foru arau honetako 47. artikuluko 2. apartatua araututa dagoen kontzeptua, ekitaldiko emaitza ere barnean hartuta, baina kanpoan utzita:

- a) Bazkideen ekarpenak.
- b) Kapital edo funts propioen gehikuntza kredituak konpentsatzeagatik.
- c) Berezko akzioekin edo berregituraketekin egindako eragiketen ondorioz funts propioak handitzea.
- d) Foru arau honen 52. eta 53. artikuluetan aipatzen diren erreserba berezietara zuzkitu diren kopuruak.
- e) Finantza tresna konposatuen jaulkipen bati dagozkion funts propioak.



f) Zerga honen karga tasa murriztearen edo handitzearen ondorioz zerga geroratuen aktiboetan izandako aldaketei dagozkien funts propioak.

g) Erakundeetan partaidetza zuzena edo zeharkakoa duten bazkideen ekarpenen zenbatekoa, bazkideak murrizketa aplikatu duen zergaldia amaitzen denetik bost urteko epean artikuluko honetan xedatutakoa aplikatu badute.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuz kalkulaturako zenbatekotik ondare elementu hauen kontabilitateko balioa kendu behar da:

a) Erakundeen funts propioetako partaidetza adierazten duten balioak, erakunde horien errentei aplikatu ahal bazaie foru arau honetako 33. artikuluko 1. apartatua ezarritako araubidea edo 34. artikuluko 1. apartatua ezarritakoa.

b) Erakundeak emandako partaidetza maileguak, baldin eta foru arau honetako 39. artikuluko 3. apartatua xedatutakoa aplikatzen bazaie.

c) Atzerriko establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak, baldin eta establezimendu horren errentei foru arau honetako 35. artikuluan ezarritako araubidea aplikatzen bazaie.

d) Foru arau honetako 36. artikuluan xedatutakoa aplikatuta ondare elementuak besterenduz lortu diren aparteko mozkinak beste ondare elementu batzuetan berrinbertitzen badira, berrinbertsioa gauzatu duten beste ondare elementu horiek.

e) Atzerrian dauden ondare elementuak, sortzen dituzten errentak Espainiako lurraldean zergapean ez badaude nazioarteko itun batean xedatutakoa dela bide.

f) Beste ondare elementu batzuk, erakundearen jarduera ekonomikoei atxikita ez daudenak edo Espainiako lurraldean zergapetutako etekin erregularrik ematen ez dutenak.”

Hamabost. 64 bis artikulua 5. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“5. Zergadun batek eta bere taldeko entitateek artikuluko honetan ezartzen denaren arabera gehienez 200.000 euroko kenkariak aplikatu ahal izango dituzte ondoz ondoko hiru zergalditan. Hori dela eta, ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aplikatzen dituen kenkariak zein beraren taldeko entitateek (Merkataritza Kodea, 42. artikulua) aplikatzen dituztenak hartuko dira kontuan, egoitza eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra gorabehera. 200.000 euroko muga ez da aplikatuko ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen entitatea mikroenpresa edo enpresa txikia denean.

Zergadun batek ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektu bat egiten badu bere taldeko entitate batzuekin batera (Merkataritza Kodea, 42. artikulua), egoitza eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra gorabehera, ondoz ondoko hiru zergalditan ezin jaso izango du artikuluko honetan ezartzen denaren arabera 200.000 eurotik gorako kenkariak eragiten dituen zenbatekotik gorako finantzaketa. 200.000 euroko muga 1.000.000 eurokoa izango da ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen entitatea mikroenpresa edo enpresa txikia denean.

Foru arau honetako VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen den araubide bereziari heldutako enpresa erosteta eta bategiteen kasuan, apartatu honetako mugak enpresa eskuratzailerak edo entitate berriak artikuluko honetan aipatzen direnak bezalako proiektu berrietan duen partaidetza zenbatzeko aplikatuko dira.”

Hamasei. 64 bis artikulua 8. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“ Halaber, finantzatzailearen kaudimenaren inguruko inguruabar bereziren bat gertatzen bada, Zerga Administrazioari baimena eskatu ahal izango zaio teknologien arloko ikerkuntza eta garapeneko edo berrikuntzako proiektu bat finantzatzeko formalizatutako kontratuetan ari den zergadunaren lekuan subrogatzeko.”

Hamazazpi. 77. artikulua 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Azaroaren 12ko 22/2014 Legean araututako arrisku-kapitaleko entitateek (22/2014 Legea, azaroaren 12koa, arrisku kapitaleko entitateak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzen duena) foru arau honen 34. artikulua 1. apartatua ezarritako araubidea aplikatu ahalko diete parte hartzen duten enpresen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzaren balio adierazgarriak eskualdatzetik lortzen dituzten errentei, foru arau honen 33. artikulua 1. apartatua a) eta c) letrak bete den kontuan hartu gabe, betiere partaidetza eskuratu zenetik 15 urte igaro ez badira.”

Hemezortzi. 77. artikuluko 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

“2. Arrisku kapitaleko sozietate eta funtsek sustatu eta bultzatzen dituzten sozietateetatik jasotako dibidenduek eta, oro har, mozkinetako partaidetzek foru arau honetako 33. artikuluko 1. apartatua aurreikusitako araubidea, hau da, zerga oinarrian ez integratzekoa, izango dute, apartatu horretako a) eta c) letrak betetzea gorabehera.”

Hemeretzi. 77. artikulua 3. apartatua a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“a) Foru arau honetako 33. artikuluko 1. apartatua ezarritakoa aplikatzeko eskubidea emango dute, apartatu horretako a) eta c) letretan xedatutakoa betetzea gorabehera, baldin eta hartzailea zerga honen kargapeko zergaduna edo establezimendu iraunkorra duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko zergaduna bada.”

Hogei. 77. artikulua 4. apartatua a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“a) Foru arau honetako 34. artikuluko 1. apartatua ezarritakoa aplikatzeko eskubidea emango dute, foru arau horretako 33. artikulua 1. apartatua a) eta c) letretan xedatutakoa betetzea gorabehera, baldin eta hartzailea zerga honen kargapeko zergaduna edo establezimendu iraunkorra duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko zergaduna bada.”

Hogeita bat. 77. artikuluko 10. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“10. Partaidetzako erakundeak Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauaren bidez araututako balore merkatu batean kotizatzen badu, aurreko 1. apartatua ezarritako araubidea aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da arrisku kapitaleko erakundeak enpresa partaidetuaren kapitalean duen partaidetza eskualdatzea, gehienez ere hiru urteko epean, enpresa partaidetua kotizatzeko onartu den egunetik kontatzen hasita.”

Hogeita bi. 114. artikulua 3. apartatua azkenurreko paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Aukera eskritura publikoan edo dokumentu publiko baliokidean jaso beharko da, eta helmugako estatu kideko Erregistro Publikoan inskriba daiteke, sozietateen zuzenbidearen alderdi jakin batzuei buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko 2017/1132 (EB) Zuzentaruaren aurreikusitako duen bezala, eta eragiketa dokumentatu behar da.”

Hogeita hiru. Hogeita bigarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona:

“Hogeita bigarrena. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzei buruzko araubide iragankorra.

Foru arau honen 64 bis artikulua xedatzen dena 2021eko zerga neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren 3. artikulua edo 2023ko zerga neurriei buruzko abenduaren 23ko 24/2022 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriari heltzen dioten ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuei aplikatuko zaie.”

Hogehitalau. 14. apartatua gehitu da 54. artikulua amaieran, honako eduki honekin:

“14. Erakundeak Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziari besteren konturako langileek egindako kotizazioak gauzatzeko ordainsari gisa ordaintzen baldin baditu, gastu handiagoa edo txikiagoa eragin daiteke erregimen horri egindako kotizazioen erregularizazioak direla-eta, erregularizatu beharreko aldiak egindako behin-behineko kotizazioen aldean (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 308. artikuluan aurreikusita daude). Hortaz, gastu handiago edo txikiago hori erakundeak dagozkion diru-sarrerara gehigarriak egiten dituen edo dagozkien itzulketak lortzen dituen zergaldiei egotziko zaie.

Hala ere, erakunde enplegatzaileak aukera izango du erregularizazio horien ondoriozko gastu-gehikuntzak edo murrizketak kotizazioak dagozkien zergaldiei egozteko, autolikidazio osagarri baten bidez, zehapenik edo errekar gurik ezarri gabe, eta berandutze-interesik sortu gabe, edo, hala badagokio, zuzenketa-eskaera baten bidez. Aipatutako autolikidazio osagarria edo zuzentzeko eskaera honako epe honetan aurkeztuko dira: erregularizatu beharreko zenbatekoak ordaintzen edo lortzen diren egunean hasi eta zerga honen autolikidazioaren hurrengo epea amaitu bitartean.”

Hogeitabost. w). apartatua gehitu da 128. artikulua 1. apartatuaren amaieran, honako eduki honekin:

“w) Dagokien zergaldiari egozteko 54. artikulua 14. apartatua erregulatutako gastu-gehikuntza edo -murrizketa.”

#### **4. artikulua. Ondarearen gaineko zerga**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. 5. artikuluko Zazpi apartatua g) letra gehitu da, eta honela geratzen da idatzita:

“g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenen ondoriozko eskubide ekonomikoak. Erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparri buruzkoa da.”

Bi. 6. artikulua Bi apartatuaren c) letraren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“c) Zergadunak entitatearen kapitalean daukan partaidetza gutxienez ehuneko bostekoa izatea, berarena soilik zenbatuta, edo ehuneko 20koa, berarekin batera ezkontidearena, izatezko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako bikotea), aurrekoena, ondorengoena edo laugarren graduako albo ahaideena ere zenbatuta (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa -Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera- edo adopzioa).”

Hiru. 6. artikulua seigarren apartatuaren lehenengo paragrafoaren lehenengo tartekia aldatzen da eta honela geratzen da:

“Sei. Salbuespena ez zaie aplikatuko ondoko letretan aipatzen diren ondasunei eta partaidetzen balioari, aurreko laugarren apartatuaren azken bi paragrafoetan xedatzen dena aplikatu ahal zaienean izan ezik.”

#### **5. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga**

Honako aldaketa hauek egiten dira Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauan (foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 13. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Foru arau honen 38. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharreko aitortutako edo autolikidazioan interesdunek zergapeko ondare gehikuntzako ondasun eta eskubide bakoitzaren benetako balioa adierazi behar dute. Aitortutako balioa egiaztatutako balioa baino handiagoa bada, aitortutakoa hartuko da kontuan, salbu eta foru arau honetako 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldean aipatzen diren eskuratzetan.”

Bi. 13. artikulua 4. apartatuaren i) letraren bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen ez diren balore tituluen eskualdaketa, zerga oinarria eskualdatutako partaidetzen ondare garbiaren balioa izango da, eta hori eskualdaketa egin den eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatuko da.”

Hiru. 20 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Asegurua ezkontide batek kontratatu badu irabazpidezko sozietatearen kontura eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea edo aurreko zein ondoko odol ahaidea bada, jasotako kopuru osoa sartuko da zerga oinarrian.”

Lau. 21. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balio egiaztatua ezingo da izan eskualdaketa aurretik kausatzaileak edo dohaintza-emaileak ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako egindako azken aitortutako egotzi zaien balioa baino gutxiago, foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldean aipatzen diren eskuratzetan izan ezik.”

Bost. 22. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, «mortis causa» eskuraketetan edo beste edozein oinordetza tituluren bidezko eskuraketetan, likidazio oinarria kalkulatzeko, ahaidearen graduen arabera murrizketak aplikatu behar zaizkio zerga oinarriari; hona murrizketak:

0 taldea: ezkontideak, izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotea), aurreko zein ondoko lerro zuzeneko odol ahaideak edo adoptatuek edo adoptatzaileek egindako eskuraketak; 400.000,00 euro.

I. taldea: bigarren eta hirugarren mailako alboko odol ahaideek eta ezkontza bidezko ondoko eta aurreko ahaideek, are Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoek ere, egindako eskuraketak; 38.156,00 euro.

II. taldea: laugarren mailako alboko ahaideek, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako alboko ahaideek eta urrunagoko ahaideek eta arrotzek egindako eskuraketak; ez dago murrizketarik.

Ehuneko 33 - 65 bitarteko desgaitasuna onartuta daukatela frogatzen duten pertsonak egindako eskuraketetan 56.109,00 euroko murrizketa aplikatuko da. Desgaitasuna frogatzeko, desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan xedatzen dena aplikatuko da.

Murrizketa 176.045,00 eurokoa izango da aurrean aipatutako arautegiaren arabera ehuneko 65eko desgaitasuna edo hortik gorakoa onartuta daukatela frogatzen dutenentzat, bai eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendekotasuna baloratzeko baremoa onesten duenak, xedatutakoaren arabera mendekotasun ertaina (I. gradua) edo handiagoa onartuta daukatela frogatzen dutenentzat ere. Inolaz ere ezin izango da murrizketa aplikatu aldi berean bi kontzeptuengatik.

Aurreko bi paragrafoetan adierazitakoaz gainera, pertsona horiei arau hauek ere aplikatuko zaizkie:

a) 1. apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den murrizketaren orde, ahaidetasun gradua gorabehera, 38.156,00 euroko murrizketa aplikatuko da, eta kopuru horri 4.770,00 euro gehituko zaizkio kausadunari hogeita bat urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko. Guztira, murrizketaren zenbatekoa ezin da izan 119.930 euro baino gehiago.

b) Foru arau honen 24. artikuluan aipatzen den I. tarifa aplikatuko da.

Aurreko hiru paragrafoetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko desgaitasun edo mendekotasun gradu bat onartuta eduki arren 0 taldean dauden pertsoneri.”

Sei. 24. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“24. artikulua. Kuota.

Zergaren kuota osoa kalkulatzeko, aurrean esandako moduan kalkulaturiko likidazio oinarriari jarraian ageri diren tarifetatik edo tasa finkoetatik egokia dena aplikatuko zaio, kasuan kasukoa foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuan zehazten diren ahaidetasun mailen arabera eta apartatu horretan bertan aipatzen diren mendekotasun edo desgaitasun graduetako bat onartuta daukatela frogatzen duten pertsoneri buruz xedatzen denari jarraikiz.

Tasa finkoa.

Aplikazio eremua: foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldea. Ehuneko 1,5eko zerga tasa aplikatuko da.

I. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren mendekotasun edo desgaitasun graduetako bat onartuta daukatela frogatzen duten pertsonak.

LIKIDAZIO OINARRIA EURO	KUOTA EURO	TASA MARJINALA EURO	(EHUNEKOA)
0,00	9.086,00	0,00	3,80
9.086,01	27.261,00	345,27	5,32
27.261,01	45.431,00	1.312,18	6,84
45.431,01	90.850,00	2.555,01	8,36
90.850,01	181.706,00	6.352,03	10,64
181.706,01	454.259,00	16.019,11	13,68
454.259,01	908.518,00	53.304,36	16,72
908.518,01	2.271.297,00	129.256,47	21,28
2.271.297,01	Hortik gora	419.255,84	26,60

II. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko I. taldea.

LIKIDAZIO OINARRIA EURO	KUOTA EURO	TASA MARJINALA EURO	(EHUNEKOA)
0,00	9.086,00	0,00	5,70
9.086,01	27.261,00	517,90	7,98
27.261,01	45.431,00	1.968,27	10,26
45.431,01	90.850,00	3.832,51	12,54
90.850,01	181.706,00	9.528,05	15,58
181.706,01	454.259,00	23.683,42	19,38
454.259,01	908.518,00	76.504,19	23,18
908.518,01	2.271.297,00	181.801,42	28,50
2.271.297,01	Hortik gora	570.193,44	34,58

## III. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko II. taldea.

LIKIDAZIO OINARRIA EURO	KUOTA EURO	TASA MARJINALA EURO	(EHUNEKOA)
0,00	9.086,00	0,00	7,60
9.086,01	27.261,00	690,54	10,64
27.261,01	45.431,00	2.624,36	13,68
45.431,01	90.850,00	5.110,01	16,72
90.850,01	181.706,00	12.704,07	20,52
181.706,01	454.259,00	31.347,72	25,08
454.259,01	908.518,00	99.704,01	29,64
908.518,01	2.271.297,00	234.346,38	35,72
2.271.297,01	Hortik gora	721.131,04	42,56

Zazpi. 36. artikulua 2. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko apartatua aipatzen diren dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako doako eskualdaketak eta dohaintza emaileak dohaintza hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza eskualdaketak, foru arau honetan salbuetsizat jotzen diren ondasunen “mortis causa” eskuraketak izan ezik, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga kuota zehazteko orduan, betiere horien arteko aldia hiru baino luzeagoa ez bada. Zerga kuota kalkulatzeko, zerga oinarri guztiak batuko dira. Metatutako eskuraketengatik aurretik ordaindutako kuotak kengarriak izango dira metaketaren ondorioz egindako likidaziotik, eta horregatik ez da kuotarik itzuliko.”

Zortzi. 37. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Foru arau honen 13. artikulua 1. apartatuaren c) letran aipatzen den zerga oinarria kalkulatzeko metatu egingo dira onuradunak hildakoaren bizitza aseguru guztiengatik jasotako diru kopuru guztiak.

2. Jasotako kopuru horiek likidatu ondoren artikulua honen aurreko apartatua aipatzen den metaketa egin behar bada, beste likidazio bat egingo da metaketaren zerga oinarria kontuan hartuz, eta hortik sortzen den kuotatik metaketa egin aurretik ordaindutako zerga kuotak kendu ahal izango dira.”

#### 6. artikulua. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

Honako aldaketa hauek egiten dira Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan (foru arau hau indarrean jartzen denetik sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 8. artikuluko D) letraren hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Era berean, ez dira zergapetuko Arabako Foru Aldundiak emandako hiri izaerako katastro erreferentzia bat duten ondasun higiezinetan agertzen diren gehiegizko edukierak.”

Bi. 23. artikuluko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Titulu honetan araututako “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuaren mende ez dira egongo zergaren zerga egitatean sartutako eragiketak, eskuratzailaren izaera edozein dela ere, eskualdatzaileak enpresaburuak edo profesionalak direnean beren jardura ekonomikoa gauzatzean, eta, nolabehar ere, balio erantsiaren gaineko zergari lotutako ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak direnean Hala ere, zerga kontzeptu horren mende egongo dira ondasun higiezinaren emateak edo errentamenduak, bai eta ondasun horien gaineko erabilera eta gozamen eskubide errealean eraketa eta eskualdatzea ere, balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespena dutenean.”

Hiru. 43. artikulua lehenengo apartatuaren a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Ondasun higiezinak eskualdatzen direnean, bai eta horiek sortzen dituzten eskubide errealak eratzten eta lagatzen direnean ere, ehuneko 7 izango da, bermeko eskubide errealak direnean izan ezik.”

Lau. 69. artikulua lehenengo apartatuaren B) letraren 21. zenbakia aldatzen da eta honela geratzen da:

“21. Foru arau honen 56. artikulua 2. apartatua aipatzen den egintza juridiko dokumentatuen mailaz mailako kargatik salbuetsita daude mailegu edo kreditu bat ordainduko delako berme gisa eraturako hipotekako eskubide errealean eraketa, aldaketa edo kitapena dokumentatzen duten notaritzako eskrituren lehenengo kopiak, baldin eta maileguaren xedea Arabako lurraldean dagoen ohiko etxebizitza erostea edo birgaitzea bada. Ohiko etxebizitza terminoak ondokoak hartzen ditu: bi garaje plaza eta bi eranskin, gehienez, eraikin berekoak badira eta denak batera eskualdatzen badira. Hori dela eta, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzat edo birgaitzetat joko dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauak eta hura geratzen duten arauak zehazten dituzten kontzeptuen barruan sartzen direnak.

Mailegua edo kreditua etxebizitza eraikitze erabiltzen bada, eraikuntza lanak hipotekaren eskubide erreala eratzten denetik lau urte pasatu baino lehen amaitu behar dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko arautegian etxebizitza ohikotzat hartzeko ezarritako baldintzak edo eraikuntzarako mailegua edo kreditua salbuesteko baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboak aitorten egokia aurkeztu behar du ez-betetzea gertatzen denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen, eta horrek bidezko likidazioa eragingo du eta bertan behar diren berandutze interesak eskatuko dira.

Zenbaki honen lehen paragrafoan aipatzen den notariotzako eskrituran bertan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazi behar da; nolahi ere, horrek ez du eragotziko Zerga Administrazioak egiaztatze ahalmena erabiltzea.”

Bost. 69. artikulua lehenengo apartatuaren B) letraren 39. zenbakiaren lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“39. ‘Bizigune’ etxebizitza hutsen programari lotutako etxebizitzaren errentamendua, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan arautua, edo ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) etxebizitza libreen alokairuaren merkatuko bitartekaritza, Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuan arautua, bai eta antzeko foru edo udal plan edo programa batzuk ere.”

Sei. 69. artikulua lehenengo apartatuaren B) letraren 53. zenbakia aldatzen da eta honela geratzen da:

“53. Edozein tituluren bidez ondasunak edo eskubideak eskualdatzea, kalteordainak ordaintzeko, judizialki aitortutako zenbatekoan, seme-alaben eta adingabeen mesedetan edo tutoretza, zaintza eta babespea duten pertsona desgaituen mesedetan, baldin eta eskualdaketa horiek emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeek egiten badituzte, legeak edo Espainiak berretsita nazioarteko tresnek zehazten duten moduan.”

#### **7. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga**

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 14. artikulua 1. apartatuaren a) letra aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak):

“a) Pertsona fisikoek jasotzen dituzten diru kopuru hauek: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautu eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 7. artikuluan aipatzen diren errentak eta 42. artikulua 3. apartatua aipatzen diren lanaren etekinak.”



**8. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga**

Lehenengoa. Irailaren 29ko 3/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsitako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren testu bateginaren 5. artikulua 1. apartatuaren c) letrako 3. erregelaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita (aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“Entitatea, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, arestian adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira, talde horretako erakunde guztiei buruzkoak izango dira, urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra alde batera utzita.”

Bigarrena. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta horien aplikaziorako jarraibideak onesten dituen uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaren I. eranskinean jasotako zerga tarifetan:

Bat. Tarifen lehenengo ataleko 76 multzoko 761 taldea honela geratzen da idatzita:

“761 TALDEA. TELEFONO ZERBITZUAK.

Epigrafea. 761.1. Telefonía finkoko zerbitzua.

Udaleko gutxieneko kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuko kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

Epigrafea. 761.2. Telefonía mugikorreko zerbitzua.

Estatuko kuota:

1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

761. talde osorako oharra: Abonatuak kalkulatzeko, telefonía finkoko edo mugikorreko operadore bakoitzaren bezero guztiak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren.”

Bi. Lehenengo ataleko 84 multzoko 848 taldea honela geratzen da idatzita:

“848 TALDEA. ZERBITZU INTEGRALAK.

Epigrafea. 848.1. Telekomunikazio eta telefonía zerbitzu integralak.

Estatuko kuota: 12.020,24 euro.

Oharrak:

1. Epigrafe honetan sartzen dira posta zerbitzuak ematea: korrespondentzia bidalketak eta posta bidalketak jasotzea, onartzea, sailkatzea, tratatzea, bideratzea, garraiatzea, banatzea eta entregatzea, modalitate guztietan; telegramak, telexa, posta igorpena eta telegrafikoa, bai eta aurrekoen antzeko beste edozein ere.

2. Posta zigiluak eta gainerako frankeo zeinuak jaulkitzeko eta banatzeko jarduera kuota gehigarririk ordaindu gabe egin ahal izango da.

848.2. epigrafea. Bulego malguko zerbitzuak, coworkingak edo negozio zentroak.

Udaleko gutxieneko kuota: 202 euro.

Probintziako kuota: 20.000 euro.

Estatuko kuota: 35.000 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sartzen dira bezeroei (enpresei eta profesionalei) beren jarduera garatzeko behar duten azpiegitura eskaintzen dieten bulego malguk, coworkingek eta negozio zentroek emandako zerbitzuak: lan espazioak, bulegoak, bilera gelak, prestakuntza gelak edo guztiz hornitutako hitzaldi gelak, ekitaldiak, lanpostu malgu edo finakoak, komunikazio zerbitzuak, bideokonferentzia zerbitzuak eta Internetarako konexioa, bulego birtualak, dokumentazioen eta korrespondentziaren kudeaketa, idazkaritza zerbitzuak, catering zerbitzuak, ofimatika, etab.”

Hiru. Bigarren ataleko 86. multzoa honela geratzen da idatzita:

A) Multzoaren izenburua berriro idazten da, eta honela geratzen da:

“86. multzoa. Lanbide liberalak, artistikoak, literarioak eta kulturalak.”

B) 861. taldea honela geratzen da idatzita:

“861. TALDEA. PINTOREAK, ESKULTOREAK, ZERAMIKARIAK, ARTISAUAK, GRABATZAILAK, FALLA ARTISTAK ETA ANTZEKO ARTISTAK.

Kuota: 115 euro.”

C) 864 taldea gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“864 TALDEA. IDAZLEAK ETA GIDOILARIAK.

Kuota: 115 euro.

Oharra: Epigrafe honetan, jendeari abesten zaion ahozko literatura edo bertsolaritza sartzen da.”

D) 869 taldea gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“869 TALDEA. HIRUGARREN ATALEAN SAILKATU GABEKO JARDUERA ARTISTIKO ETA KULTURALEKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE PROFESIONAL BATZUK.

Kuota: 115 euro.”

Lau. 88 multzoan 889 taldea gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“889 TALDEA. MENDIKO GIDARIAK.

Kuota: 126 euro.”

Bost. Hirugarren ataleko 03 multzoan 034 taldea gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“034 TALDEA. KONPOSITOREAK, KANTA IDAZLEAK, MOLDATZAILEAK ETA MUSIKA EGOKITZAILEAK.

Kuota: 100 euro.”

### **9. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga**

2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bateginaren 15. artikulua 11. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“11. Zerga ordenantzek zergaren kuota osoaren 100eko 50erainoko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren honako esparruen programetan lagatzen diren ondasun higiezinentzat: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen “Bizigune” Programaren esparruan (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak arautzen du), Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP bitartekaritza programen esparruan (Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuak arautzen du), edo erkidegoko, aldundietako eta udaletako etxebizitza planen eta programen esparruko higiezinentzat.”

**10. artikulua. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga**

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina, irailaren 29ko 5/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsitakoa, aldatzen da (aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak): 8. artikulua 1. apartatuaren bi f) letrak f) eta g) letrak izango dira hurrenez hurren, eta egungo g) letra h) letra izango da. Honela geratzen dira:

“f) Ehuneko 95erainoko hobaria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneeetan kokatutako higiezinak eraikuntza, instalazio edo obrentzat.

Letra honetan aurreikusitako hobaria aurreko letretan aipatutako hobariak aplikatu ondoren ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

g) Kuotaren ehuneko 50erainoko hobaria, udal kuotak ordaintzen dituzten eta ekonomia zirkularrarekin lotura zuzena duen jarduera ekonomiko bat egiten duten subjektu pasiboen kuotan.

Ondorio horietarako, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotuta dagoela ulertuko da jarduera ekonomikoaren helburua hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea, konpontzea eta balorizatzea bada.

Ordenantza fiskalak hobari ehuneko desberdinak ezarri ahal izango ditu, geratzen den jarduera ekonomikoaren arabera.

Aurreko letretan aipatutako hobariak aplikatu ondoren ateratzen den kuotari aplikatuko zaio hobaria.

h) Ehuneko 90eko hobaria, gehienez, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak egiten diren eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.”

**11. artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga**

Honako aldaketa hauek egiten dira Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren testu bategina onetsi duen irailaren 29ko 6/2021 Araugintzako Foru Dekretuan (2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 2. artikulua 1. apartatuaren e) letraren a') eta b') azpiapartatuak eta e) letraren azken paragrafoa aldatzen dira eta honela geratzen dira:

“a') Ehuneko 33 eta 65 bitarteko desgaitasun gradua onartuta daukaten pertsonak, mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukatenak desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera.

b') Ehuneko 65eko desgaitasun gradua edo hortik gorakoa daukaten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan aipatzen diren pertsonetatik desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 75 edo gehiago murriztuta daukatenei ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, baldin eta ibilgailua gurpil aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.”

Bi. 2. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Aurreko 1. apartatuaren e) letraren bigarren paragrafoan arautzen den salbuespena aplikatu ahal izateko, interesdunak desgaitasuna frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar du (mugitzeko gaitasuna murriztuta edukiz gero, organo eskudunak horretaz emandako ziurtagiria ere bai) eta ibilgailua zertarako erabiliko den frogatu behar dio zerga ordainarazten duen udalari, horri buruzko zerga ordenantzan ezartzen denarekin bat etorriz.”

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Desgaitasunarekin eta hirugarrenen laguntzarekin lotutako egoera batzuen zerga tratamendua.

Arabako zergen arloko arautegiaren ondorioetarako, ez beste ezertarako, Arabako Lurralde Historikoko foru erakundeek arautzeko eskumena daukaten zergetan mendekotasun larria (II. gradua) daukaten pertsonekin parekatzen dira foru arau hau indarrean jartzen denean edo, bestela, ondorioak sortzen hasten denean, kasuan kasukoa, ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa onartuta daukaten pertsonak, horrez gainera hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 15 - 39 puntu lortu badituzte, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eranskinean eta 174/2011 Errege Dekretuan (otsailaren 11koa, mendetasuna baloratzeko baremoa, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa, onetsi duena) ezartzen denarekin bat etorri.

Halaber, mendekotasun handia (III. gradua) daukaten pertsonekin parekatzen dira foru arau hau indarrean jartzen denean edo, bestela, ondorioak sortzen hasten denean, kasuan kasukoa, ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa onartuta daukaten pertsonak, horrez gainera hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 40 puntu lortu badituzte, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eranskinean eta 174/2011 Errege Dekretuan (otsailaren 11koa, mendetasuna baloratzeko baremoa, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa, onetsi duena) ezartzen denarekin bat etorri.

Ondorio beretarako, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonatzat (mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukatenak Desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera) hartuko dira honako hauek: Desgaitasun graduaren aintzatespena, adierazpena eta kalifikazioa egiteko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskineko baremoaren A, B edo C letretan azaltzen diren egoeretako batean dauden pertsonak edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak, arautegi hori 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasunaren gradua aintzatesteko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena, indarrean ipini aurretik aplikatuz.

Bigarrena. Mahastietan eta zereal, erremolatxa, patata, lekadun, egoskari eta oleaginoso sailetan izan diren galerengatik nekazaritzako aseguruak ematen dituzten konpentsazioen denbora egozpena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek hurrengo paragrafoan azaltzen diren inguruabarrengatik 2024an nekazaritzako aseguruaren kontratazioaren ondorioz konpentsazioak jasotzen badituzte mahastietan eta zereal, erremolatxa, patata, lekadun, egoskari eta oleaginoso sailetan izandako galerengatik, jasotako konpentsazio guztiak 2023ko edo 2024ko zergaldira egotzi ahal izango dituzte, diru sarreraren eta gastuen denbora egozpenerako aplikatzen ari diren edo aplikatu izan duten irizpidea gorabehera.

Hona aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak:

– 2023ko apirilean eta maiatzean Arabako Haranak eskualdeko zenbait udalerritan izan ziren izozteak.

– 2023ko udaberrian Arabako Errioxan eta Arabako Haranetan izan ziren lehorte luzeak.

– 2023ko ekainaren 9tik 17ra bitartean Gaubean, Lantaronen, Erriberagoitian, Urizaharrean, Lagranen, Bernedon, Arraia-Maetzun eta Haranean izan ziren ekaitzak (euri jakak eta txingorra).

– 2023ko uztailaren 6an Gaubean, Añanan, Erriberagoitian, Kuartangon, Iruña Okan, Gasteizen, Arratzua-Ubarrundian, Zigoitia, Burgelun, Barrundian, Alegria-Dulantzin, Arraia-Maetzun, Iruraiz-Gaunan, Kanpezun, Donemiliagan, Agurainen eta Bastidan izan ziren ekaitzak.

Aurreko paragrafoetan xedatzen dena aplikatu ahal izateko, Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak berriazko jakinarazpena egin behar dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, eta egokitzen dituen neurriak eta prozedurak ezarriko ditu.

Hirugarrena. Aldaketa: 1/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa, onesten duena alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta.

Otsailaren 7ko 1/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretuak onesten du alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta. Horren 3. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek hurrengo paragrafoan azaltzen diren inguruabarrengatik 2023an nekazaritzako aseguruaren kontratazioaren ondorioz konpentsazioak jasotzen badituzte mahastietan eta zereal, erremolatxa, patata, lekadun, egoskari eta oleaginoso sailetan izandako galerengatik, jasotako konpentsazio guztiak 2022ko edo 2023ko zergaldira egotzi ahal izango dituzte, diru sarreraren eta gastuen denbora egozpenerako aplikatzen ari diren edo aplikatu izan duten irizpidea gorabehera.”

Laugarrena. Kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik.

Bat. 2024ko zergaldian soilik zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osotik kendu ahal izango dute beren jabetzako finkan edo komunitate garajearen jabetzako eta erabilera partikularreko ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeko ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 15. Instalazio horiek 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean hasi behar dira.

Bi. Aurreko lehen apartatuan arautzen den kenkaria aplikatzeko, indarreko legerian eskatzen diren baimenak eduki behar dira.

Hiru. Aurreko lehen apartatuan arautzen den kenkariaren oinarriak muga dauka: 15.000 euro. Hori dela eta, zergadunak ordaindutako diru kopuruak frogatu beharko ditu, eta horretarako faktura egokiak aurkeztu beharko ditu. Fakturak berei buruzko araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Lau. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa.

Ordaindutako zenbatekoa aurreko hirugarren apartatuan aipatzen den kenkariaren gehieneko oinarria baino gehiago izanez gero, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsitako dirulaguntzek kenkariaren oinarria txikituko dute modu proportzionalean.

Bost. Xedapen gehigarri honen lehen apartatuan aipatzen diren instalazioak amaituta egon behar dira 2025eko martxoaren 31rako, eta ordura arte ordaintzen diren diru kopuruak aurreko hirugarren apartatuan aipatzen den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

Sei. Kenkari hau aplikatuz gero, finka edo garaje komunitario berean egindako instalazioak direla eta ezin aplikatu izango dira honako kenkari hauek: ekainaren 23ko 8/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 5. artikuluan aipatzen den kenkaria (dekretu horren bidez onesten da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriak, COVI-19rekin loturikoak); abenduaren

1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen den kenkaria (dekretu horren bidez COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko zerga neurriak onesten dira 2021erako); 2023ko zerga neurriei buruzko abenduaren 23ko 24/2022 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian arautzen den kenkaria.

Ondorioz, aurreko paragrafoan aipatzen diren kenkarietako bat aplikatuz gero, ezin aplikatu izango da xedapen gehigarri honetan arautzen den kenkaria finka edo garaje komunitario berean egindako instalazioak direla eta.

Bosgarrena. Izatezko bikoteak.

Foru arau honetan ezkontideez ezartzen diren xedapenak (bai eskubideei buruzkoak, bai betebeharreri buruzkoak) izatezko bikoteak arautu dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten izatezko bikoteetako kideei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta bikotea Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan edo Estatu Espainoleko beste administrazio publiko bateko, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialde bateko edo beste herrialde bateko antzeko erregistro batean inskribatuta badago.

Foru arau honetan izatezko bikoteak aipatzen direnean, testua aurreko paragrafoan adierazitako izatezko bikoteez ari dela ulertu behar da.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Zerga ordenantzak moldatzeko epealdia.

Toki erakundeek 2024ko ekainaren 30era arteko epealdia edukiko dute zerga ordenantzetan behar diren aldaketak egiteko, araudia foru honetan ezarritakora moldatzeko.

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan 2023ko ekitaldian desgaitasun gradua onartzeko aplikatuko den arautegia.

Desgaitasun-maila aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera desgaitasuna aitortu zaien pertsona fisikoek, 2023ko zergaldian, Arabako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia aplikatuko dute, foru-arau honetan aurreikusitako idazketaren arabera.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatzen denaren aurkako maila bereko edo behegoko mailako xedapen guztiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, ondorioak sortzen hasteko egun jakina ezarrita duten manuak izan ezik.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 22a

*Lehendakaria*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**